



KALITATEAREN POLITIKA

Euskalgintza enpresak **testuen itzulpena eta interpretazioa egiten du euskara batua, bizkaiera, ingelesa eta gaztelaniaren artean.**

Gure lanean eta bezeroei eskaintzen dizkiegun zerbitzuetan kalitatea handiagoa lortzearen, gure enpresan honako helburu hauek bete nahi ditugu:

- Kalitatea Kudeatzeko Sistema **optimizatzea** eta berau hobetzea enpresa osatzen dugun guztion ardura da, Zuzendaritzatik bertatik hasita.
- Gure lanaren kalitatea **hobetzea**. Lehentasunetako bat da merkatuan lehiakorrak izaten jarraitzeko, baita gugan etengabeko konfiantza duten bezeroak asetzeko ere.
- Gure bezeroen beharrak eta betekizunak **betetzea**; izan ere, Euskalgintzaren eta bertako lan-sistematikaren xedea da gure bezero guztiak asetzea, enpresa osoaren konpromisoaren bidez, produktuarekin zerikusia duten lege- eta arau-betekizunak alde batera utzi gabe.
- Euskalgintzan oso arduratsuak gara gure itzulpenetan **akatsik ez egiteko konpromisoarekin**. Itzulpena bezeroari igorri aurretiko kontrol- eta berrikuspen-sistema zorrotz batean oinarritzen da konpromiso hori.
- Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren oinarria **etengabeko hobekuntza-plana** da, hala ekoizpen-prozesuak hobetzeko, nola kalitatea kudeatzeko sistemaren eraginkortasuna hobetzeko; eta, horretarako, funtsezkoa da akatsak aurrez ikustea.
- **Gure itzultzaileak egunean daude hizkuntz arauetan zein legeen arloan gertatzen diren berrikuntzei dagokienez**, eta gure estilo-liburua edota bezeroen estilo-liburuak behar bezala ezagutzen dituzte. Egunean egotea ezinbestekoa da gure jardueran, eta hori ondo dakigu.
- Gure enpresa hobetzearen aldeko konpromisoan denon parte-hartzea eta laguntza behar da; hortaz, ezinbestekoa da aintzat hartzea enpresako partaide guztien **motibazioa, prestakuntza eta komunikazioa**.

Printzipio horiek eraginkortasunez ezartzeko, behar-beharrezkoa da zuzendaritza-taldeak zein langileek haiek babestea, baita hornitzaile eta azpikontratatuak ere.

Alberto Garay, 2017ko maiatzaren 5a

Rev 01